

Liburuak

KRITIKA

Goitik behera

Helduen literatura

Igor Estankona

1984AN JAIOA, eta hala ere heriotza sano presente baten erretratua egiten du Ione Gorostartzuk *Des egiten* honen hasierako orrialdeetan. Halako larridura bat sartu zait, erasan egin dit hasierako poemak indarrak, ikusiz zein natural hitz egiten duen ulertu ezin denaren gainean, zein zoragarri deskribatzen dituen akabera eta bizirik gaudenean gertatzen zaizkigun beste heriotza batzuk: agurrak, adintzea, ohea goizaldean.

Poesiak soilik lor dezake hori; gudan dagoena eta inon ez dagoena deskribatzea. Oso hurbil dago idazlea bere errailetatik, eta beraz irakurlearengandik. Begitandu zait liburu bat pertsonala eta humanoa, garbia, zarata eta artifizio alferrikakorik gabea eta, azalduko dudanez, epeltxo aukeran.

Poema bakoitzaren amaiera, bereziki zaindua liburu honetan bertsorik sakonenetan lez, laztan bat edo kolperik bat-batekoena da: “Labazko ilea/ sugarrezko azkazalak/ lo kuluxkan baina bizi-bizirik, Etna”. Eta hain zuzen sumendia irudikatuz, 31. orrialdean, liburuak beste



Des egiten.
Ione Gorostartzu.
Elkar.
96 orrialde. 13 euro.

norako bat hartzen du indarrak galdu barik. Iratzarri egiten da ahotsa, biztu idazkera. Antitesia, hitz-jokoa, paradoxa... eta imajinatu ditzakegun figura literario guztiak oharkabean eta fineziaz konbinatzen ditu Gorostartzuk. Berez-berez edan, eta ondoren ere, ezpain-miazkatu egiten dira hainbat pieza, luma aberatsaren seinale. Adimenarekin idatzi arren eta teknika hotzean leundu arren, fisikoak eta errealak dira irudietako asko: “loturik nago –zuengana–/ txekorra sokamuturrera bezala”.

Idazleak esana da bizitzako etapa ez hain luze batean, nahiko era inpultsiboan eta soltean idatzitako olerkien bilduma dela hau, eta badu, benetan ere, inkontzientzia eta amets puntu bat. Maitasuna purua da, eta gorrotoa ere bai. Zalantza, kontraesan, duda eta ahulguneak agerian uzten ditu. Eta ahulgunez ari garela hain justu, esango nuke erritmoari eusteko zailtasunak ere badituela diskurtsoak, errepikapeneta eta hoskidetasunean lar oinarritua. “Hotza da negua / hotza azken hatsa/ azken hotsa”. Heriotzaren gai errepikakorrera eta introspektziora itzultzen da liburuak azken zatian, atrebitu ez balitz lez aurrera egiten, ahots propioari erantzuten. Idazle eskolako beldurrek eta gurasokeriek zerikusia izango dute behar bada –oraindik horrelakorik, idazle izaten ikastea posible dela pentsatzea!–. Irrikaz itxarongo diot nik liburuan barruntatzen den ahotsari, lehertzen denean: sentiarazi egin dit behintzat, aspaldiko partez. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com